

## OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023IPLE0015

**Eguna:** 2023-11-28

**Ordua:** 19:00 – 19:55

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena ..... Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre ..... Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

### Bertaratu ez direnak

- Manex Aldalur Beldarrain ..... Astigarragako EAJ-PNV

### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

### Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

### Aztergaiak

- 1.- 2023ko urriaren 31ko akta onartzea.
- 2.-2023ko udal-aurrekontua: kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean.
- 3.- 2023ko udal-aurrekontua: kreditu aldaketa, kreditu gaikuntza modalitatean.
- 4.-2024ko udal-aurrekontua: emendakinak erantzutea eta hasierako onarpena
- 5.-2024ko zerga fiskalak: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena.
- 6.- Ibai-parkea handitzeko desjabetza espedientea: administrazioaren prezio-orria.
- 7-Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak 2022IONJ0001/ 2022IONJ0002 espedientean finkatutako balioespenaren aurka jarritako PO-0000698/2023 auzi-errekurtsoa berrestea.
- 8.-Arrobitxuloko hiri-igogailua jartzeko obra-kontratuaren prezioen aparteko berrikuspena.
- 9.- Klima babeslekuen eta espazio publikoen birnaturalizazioari buruzko adierazpen instituzionala.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

10.- Euskararen nazioarteko eguneko adierazpen instituzionala

11.-Informazio, galdera eta eskariak.

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1.. 2023ko urriaren 31ko akta onartzea.

Ainara, **Narrea** eta Olaia zinegotziak abstenitu egin dira aurreko bileran ez zirelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

#### 2. 2023ko udal-aurrekontua: kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean.

Alkateak kreditu aldaketaren zergatia eta nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera

##### Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	1.021.259,97	108.150,00	913.109,97
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.021.259,97</b>	<b>108.150,00</b>	<b>913.109,97</b>

##### Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	0,00	18.150,00	18.150,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	29.000,00	5.000,00	34.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	30.000,00	85.000,00	115.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>59.000,00</b>	<b>108.150,00</b>	<b>167.150,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

#### 3. 2023ko udal-aurrekontua: kreditu aldaketa, kreditu gaikuntza modalitatean.

2023ko ekitaldiko kredituen txertaketari buruzko alkatearen 1213/2023 Dekretuaren berri eman da, eta kreditu aldaketa horren nondik norakoak azaldu dira.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 4. 2024ko udal-aurrekontua: emendakinak erantzutea eta hasierako onarpena

Alkateak gai hau aztertzeko dinamika hau proposatu du: 1) udal aurrekontua osatzeko urratsak azaltzea, 2) udal-aurrekontua aurkeztea, 3) alderdiko kideei hitza ematea, 4) akordio proposamena aurkeztea eta bozkatzea.

Udal aurrekontua osatzeko urratsei dagokionez, alkateak azaldu du prozesua irailean hasi zela udal teknikarien eta kontuhartzailearen arteko lanketarekin, ondoren auzoz auzo bilerak egin zirela herritarrekin, eta guzti horrekin udal gobernu taldearen proposamena aurkeztu zela urriaren 31ko ogasun batzordean eta azaroaren 14a bitarteko epea eman emendakinak aurkezteko, aztertu zirenak azaroaren 21eko ogasun batzordean.

Aurrekontuari dagokionez, adierazi du udalarena 12.359.152 eurokoa dela (bateratua, 12.831.715,38 euro), iazkoaren %12 handiagoa, eta horren zergatiak azaldu ditu. Jarraian aurrekontuaren ezaugarri nagusiak aurkeztu ditu kapituluka, eta azaldu du gastuen atalean udal sailek azken bi urteetan izandako bilakaera, adieraziz –besteak beste– sail guztietan, euskara eta kulturaren ez ezik, aurrekontua igo egin dela, eta bi horietan ez igotzearen arrazoia izan dela departamentuen berrantolaketa egitearen ondorioz, lan eta ekimen batzuk batetik bestera pasa izana. Ondoren gastuen argibide eta daturik esanguratsuenak eman ditu, eta igoeraren nondik norakoak azaldu ditu, adieraziz, besteak beste: pertsonalen kapitulua %15a eta udaltzaingoarena %48a igotzearen arrazoia, herritarentzako politika eta zerbitzu sozialen atala aurrekontu osoaren %39a dela, dirulaguntzak indartu direla...

María zinegotziak hartu du hitza eta adierazi ondoren ez dela hasiko banan banan azaltzen bere taldeak aurkeztutako emendakinen nondik norakoak, komentatu du aurrekontua aztertuta harritu egin direla gobernu taldeak ez dituelako jaso hauteskunde-kanpainen estrategikotzat hartzen zituen proiektu eta erronkak (kiroldegiaren handipena edota anbulatorio berria). Bestetik, adierazi du udaltzaingoaren kontusaila ikusgarriko igoera duela, besteak beste, 50.000 euro aurreikusi direlako auto berri bat erosteko, eta horren beharra zalantzan jarri du, egun badutelako. Bukatzeko, eta pilotakelua azpian egin nahi diren bi entsegu gelei dagokionez, galdetu du ea beharrezkoak diren, kontuan hartuta badaudela lokalak bai kultur etxe zaharretan bai Erribera kulturgunean.

Alkateak kiroldegia handitzeko eta anbulatorio berria jartzeko kontusailak ez sartu izanaren arrazoiak eman ditu (lehendabizikoari dagokionez, obra-proiektua idazketa-fasean egotea eta obra gauzatu ahal izateko urte anitzeko planifikazioa behar izatea; eta bigarrenari dagokionez, proposatutako kokapena udalaren jabetzakoa izatea), eta bestetik, adierazi du udaltzaintzat auto bat erostea ezinbestekotzat hartzen dela, bakarra dutelako; eta entsegu lokalak beharrezkoak direla, Erriberako antolamendua egin zenean, aspaldiko eskakizun hau kontuan hartu ez zelako. Halaber azaldu du EAJ taldeak 11 emendakin aurkeztu dituela, horietako batzuk ez dituztela ondo ulertu, eta ez onartu izaren arrazoiak eman ditu: "Sagarraren interpretazio zentroa" Sagardunetik ematea eta hori finantzatzeko planteatzea Emakumeon Etxearen dirulaguntza erdia baino gehiago hustutzea; Apeztegiko igogailuaren proiektutik dirua kentzea (proiektu hori EAJ taldeak 2021ean onartutako mugikortasun planean dagoenean); Urumea ertzean plantanalak ezin jarri izatea emaria txikiegia dagoelako; hondakinen zerbitzuaren azterketa egitea beharrezkoa ez izatea, igoeraren arrazoia delako San Marko Mankomunitateari egin beharreko ekarpena...

María zinegotziak berriro ere hitza hartu eta argitu du bere taldea ez dela iritziz aldatu, eta beraientzat ulergaitza dela udal gobernu taldeak adieraztea proiektu batzuk gauzatu direla eta horientzat kontusailik ez aurreikustea, eta horregatik proposatu dutela horiek sortzea, eta proposatutako zenbatekoa aski ez bada, gero horiek hornitu daitezkeela, kontusail aldaketa bideratuz.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta Maria zinegotziari aurpegiratu dio gobernu taldeari adieraztea beren proiektua gauzatzeko baliabideak ez jartzea eta EAJk proiektu propioak ez edukitzea. Eta Mariak argitu dio aurkeztutako emendakinetatik 3 direla udal gobernu taldearen proiektuak gauzatzeko, eta beste guztiak

beren taldearen proiektuak direla. Gainera, adierazi du tono horretan berak ez duela diskusioarekin jarraituko, eta berak alkateari bakarrik erantzuneko diola. Eta alkateak aipatu dio aurrekontuen gaia izanik, ogasuneko lehendakariak ere azalpenak eman ditzakela, zinegotzi guztiek baitute eskubidea hitz egiteko.

Jarraian, Patxi zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du, batetik, iraileko udal osoko bilkuran eskatu zuela gai mamitsuen dokumentazioa denboraz bidaltzea, eta oraingoan horrela egin dela; bestetik, asmoa zuela akordio bat lortzea eta abstenitzea borondate keinu bezala, baina udal gobernu taldearekin bilerak egin dituen arren, eta emendakin batzuk onartu zaizkion arren (eskertzen duena), hori ez duela askitatz hartzen eta aurreratu du kontra bozkatuko duela. Jarraian, onartu ez diren emendakinen nondik norakoak azaldu ditu: semaforoa jartzea, seguratasuna bermatzeko; eta merkatu estalia egitea (proiektu bat idatzita dagoenez, hori gauzatzeko kontusail bat sortzea).

Alkateak erantzun dio bere taldeak proposatutako 20 emendakinak 580.000 euroko gastua aurreikusten duela eta hori finantzatzeko 36.000 euro bakarrik. Azaldu du 4 emendakin onartu direla, batzuk ez badira onartu izan dela dagoeneko aurrekontuan jasota zeudelako eta beste batzuk ez onartzearen arrazoiak eman ditu (semaforoa jartzea ez ikustea beharrezkotzat eta udaltzainek ere ez eskatu izana, eta azoka estaliari dagokionez, eskatzen den zenbatekoa ez izatea aski obra gauzatzeko eta finantzaketa iturriak bilatu beharra). Bukatzeko adierazi du pena ematen diola jakitea kontra bozkatuko duela, eta pentsatzen duela egindako lanketarekin abstentzioa merezi zutela.

Jarraian, alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**Lehena.- PSE-EE taldeak egindako emendakin hauek partzialki onartzea: (5224 sarrera zenbakia)**

1. 5. emendakina: Bi txirrindako aparkaleku estalia jartzea. 30.000,00 euro.
2. 8. emendakina: Pumptrack lasterketa antolatzea. 5.000,00 euro.
3. 9. emendakina: Beste pipi kan sortzea. 5.000,00 euro.
4. 19. emendakina: Euskara dirulaguntza. 8.000,00 euro.

*Emendakin hauen finantzaketa honako hau izango da:*

- Gastu atalean, 07 organoko "Entsegu-gelak": 30.000,00 euro.
- Gastu atalean, 06 organoko "Dirulaguntza: musika eskola": 18.000,00 euro

**Bigarrena.- Ordezko kontu-hartzaileak egindako emendakinak onartzea. (5235 sarrera zenbakia).**

**Hirugarrena.- EAJ-PNV taldeak egindako emendakinak EZ onartzea. (5237 sarrera zenbakia).**

**Laugarrena.- EHBILDU taldeak egindako emendakinak onartzea. (5247 sarrera zenbakia).**

**Bosgarrena.- 2024ko aurrekontuari eransten zaizkion emendakin onartuekin, 2024ko Aurrekontu Orokorra bateratuari eta hura osatzen duten dokumentuei hasierako onespena ematea.**

**Seigarrena.- 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2024ko Aurrekontu Orokorra hasieraz onartzeko espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunetan, eta, alegaziorik izan ezean, behin betiko onartutzat jotzea, erabakirik eman beharrik gabe.**

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu egin da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EH Bildu) eta kontrako 4 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena eta Udal talde euskal sozialistarena).



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **5.- 2024ko zerga fiskalak: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena.**

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**Lehena.**- Ordezko kontu-hartzaileak eginiko alegazioa onartzea. (5291 sarrera zenbakia).

**Bigarrena.**- Onartu den alegazioarekin, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den zerga-ordenantzaren Testu Bategina, behin betirako onartzea.

**Hirugarrena.**- Zerga-ordenantzaren Testu Bategina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EH Bildu) kontrako 3 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena) eta abstentzio batekin (Udal talde euskal sozialistarena).

### **6.- Ibai-parkea handitzeko desjabetza espedientea: administrazioaren prezio-orria.**

Alkateak desjabetza espedientearen zergatia azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

*“Ikusirik AURREKARI hauek:*

**1.-** Maiatzaren 25eko 614/2023 Dekretuaren bidez, desjabetze-espedientea hasi zen Andre Gobadarien ibai-parkea handitzeko obrak egiteko. Espediente horrek, besteak beste, landa-katastroko 14-004 lursailari eragiten dio, Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoena, 498 erregistro-finka gisa (CRU 20011000318075, 1813 liburukia, 38 liburua, 161 folioa).

*Ebazpen horretan hasierako izaeraz onartu zen desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda, eta adierazi zen lurzatiak 1.030,43 m<sup>2</sup>-ko azalera zuela eta Benita eta M. Rosario Alberro Arreguiren jabetzakoa zela.*

**2.-** 2023ko uztailaren 3an, Benita Alberro Arreguik alegazio bat aurkeztu zuen argitaratutako ondasun eta eskubideen zerrendari buruz, eta adierazi zuen finka bere jabetzakoa baino ez zela. Baina ez zuen ezer adierazi partzela horren azalerari buruz.

**3.-** Uztailaren 17ko 874/2023 Dekretuaren bidez erabaki zen, besteak beste, Alberro andreak aurkeztutako alegazioa onartzea, eraginpeko ondasun eta eskubideen titularren zerrenda behin betiko onartzea, okupatu aurreko aktak sinatzeko deialdia egitea eta balorazioa zehazteko banakako espedientea aplikatzea.

**4.-** 2023ko irailaren 5eko idazki bidez, eta irailaren 7ko GAOn argitaratuta iragarki bidez, dei egin zitzaion, desjabetzearen eraginpean dauden pertsoneri, okupazio-aktak egiteko.

*Zehazki, Alberro andreari dei egin zitzaion irailaren 25eko 10:30erako, baina ez zen bertaratu, eta akta hilak 28an sinatzea eskatu zuen, Administrazio honek onartu zuena.*

**5.-** Urriaren 2ko idazkiaren bidez – Posta Zerbitzuak urriaren 10ean jakinarazia –, Benita Alberro jaunari 20 egun balioduneko epea eman zitzaion prezio-orria aurkezteko.

**6.-** Azaroaren 7an, Benita Alberro andreak prezio-orria aurkeztu zuen, eta, bertan, administrazio-espedienteari buruzko zenbait alegazio ere egin zituen, baina oker zuzendu zion idatzia Nahitaezko



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

Desjabetzeko Gipuzkoako Lurralde Epaimahaiari.

Aurkeztutako alegazioari buruzko **KONTSIDERAZIO JURIDIKO** hauek kontuan hartuta:

Jabetzak, prezio-orrian, desjabetzearen xede den finka baloratzeaz gain, beste alegazio batzuk ere egiten ditu, balio justua ezartzerakoan interesgarritzat jotzen dituenak.

Zehazki, alde batetik, uste du espedientea erabat deuseza dela eta defentsa-gabezia eragin duela; eta, bestetik, adierazten du desjabetu beharreko lurzatiaren azalera ez dela 1.030,43 m<sup>2</sup>-koa, administrazioak dioen bezala.

Erabateko deuseztasunari dagokionez, hainbat arrazoi ematen ditu:

**a)** Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Erregelamenduaren 3.4 artikulua arabera, maiatzaren 25eko 614/2023 Dekretua eta uztailaren 17ko 874/2023 Dekretua erabat deusezak dira, ez baitira osoko bilkuran onartu.

Egia da lege-xedapen horrek ezartzen duela osoko bilkurak hartu behar dituela administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzibidean errekurritu daitezkeen akordioak, baina errekurtsogileak ahaztu egiten du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, udal-erabaki guztiak ezin direla errekurritu administrazio-bidean eta administrazioarekiko auzibidean, eta 3.4 artikulua berak ezartzen duela alkateak duela egintza horiek emateko eskumena.

Gainera, jabetzak ez du kontuan hartzen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua arabera, osoko bilkurak bere eskumenak, besteak beste, alkateari eskuordetzea erabaki dezakeela, Astigarragako Udalaren osoko bilkurak egin duen bezala.

**b)** Maiatzaren 25eko 614/2023 Dekretua eta uztailaren 17ko 874/2023 Dekretua erabat deusezak izango lirateke, haien aurka jar daitezkeen errekurtsioak ez adierazteagatik.

Baieztapen hori ez da egia; izan ere, 614/2023 Dekretua izapide-egintza bat da, eta haren aurka ezin da errekurtsorik jarri, eta alegazioak bai, jabetzak horretarako emandako epean egin zuen bezala. Eta 874/2023 Dekretuan erabaki guztien aurka ezin da errekurtsorik jarri, eta dekretuan bertan adierazten da zein akordioren aurka jar daitezkeen, non eta zein epean.

**c)** Uztailaren 17ko 874/2023 Dekretua erabat deuseza izango litzateke, premia larriaren deklarazioa ez arrazoitzeagatik. Hain zuzen ere, desjabetze-legeriak arrazoi hori eskatzen du, baina espedientean jasota daude deklarazio hori egiteko arrazoiak, eta, beraz, dekretu horretan jasota egon ala ez ez da egia arrazoirik ez dagoenik.

**d)** Espedientea erabat deuseza ere izango litzateke, balio justuaren ordainketari aurre egiteko kreditu-atxikipenik ez dagoelako. Alderdi hori ere ez da egia, 1 0500.620.01.450.00 2022 (3704) eta 1 0500.620.01.450.00 2023 (3712) aurrekontu-partidetan kreditu nahikoa baitago desjabetzeen ordainketari aurre egiteko.

Bestalde, desjabetu beharreko azalari dagokionez, adierazi behar da jabetzak ez zuela horri buruzko alegaziorik aurkeztu – aurretiazko okupazio-akta egin arte –. Uztailaren 3an, aldiz, alegazio bat aurkeztu zuen 614/2023 Dekretuaren aurka, zeinaren bidez espedienteari hasiera eman eta hasiera batean onartu zen ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, eta eskatu zuen titulartasuna zuzentzeko, haren esanetan partzela berea bakarrik zelako. Alegazio hori onartu egin zuen alde honek.

Ondasun eta eskubideen zerrenda hori uztailaren 17ko 874/2023 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko izaeraz, eta 2023ko uztailaren 19an jakinarazi zitzaion Benita Alberro andeari. Jakinarazpen horretan adierazi zitzaion ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

errekurtsua jar zezakeela. Baina jabetzak ez zuen errekurtsorik aurkeztu, eta irmoa da administrazio-bidean.

Hala ere, horrek ez du eragozten aztertzea jabetzak azalerari dagokionez arrazoirik duen; izan ere, 39/2015 Legearen 109. artikulua xedatzen du administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituztela, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Baina azpimarratu behar da ez dela egia katastroko partzelaren zati bat Bidebitarte poligonoan kokatuta dagoela dioen baieztapena, ez eta eragiten dionik Mendiaundi Anibar 12 HJErako eta Bidebitarte 13 HJErako HAPOn aldaketa puntualaren espedientea, eta, ondorioz, hiri-lurzoru finkatu gisa kalifikatuta dagoenik, baizik eta lurzoru urbanizaezina da. Lurzatia hirigintza-eremutik kanpo baitago.

Halaber, jabetzak ez duela adierazten zein den partzelaren benetako neurketa, eta erregistroko azalera eta katastrokoa aipatzera mugatzen da; eta bigarren horri dagokionez, honako hau dio, hitzez hitz, bere idazkiaren 3. eta 8. orrialdeetan: según los datos oficiales del Catastro de Bienes de Naturaleza Rústica de Gipuzkoa, que gozan de presunción de legalidad, veracidad y acierto, obsérvese, tiene una superficie total de 1340 m<sup>2</sup>. Eta kontzeptu hori bera errepikatzen da idazkian, adibidez, 15., 16. eta 18. orrialdeetan...

Ahaztu gabe, gainera, Hipoteka Legearen 38. artikulua babesten duen erregistro-zehaztasunak datu juridikoak baino ez dituela hartzen, eta ez egitatezko inguruabarrak, hala nola azalera, egoera, mugak..., jurisprudentziak – besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1989-07-11ko epaian – aitortzen duenaren arabera.

Amaitzeko, adierazi behar da inoiz ez dela adierazi Benita Alberro irailaren 28an ez zela bertaratu aurretiazko okupazio-akta sinatzera. Kontua da bai pertsonalki deituta zegoela – irailaren 15ean posta ziurtatu bidez, bai irailaren 7ko GAOn argitaratutako iragarki bidez –, irailaren 25ean sinatzeko; eta ekitaldi horretara ez zen bertaratu. Eta Udal honek erabaki zuen hiru egun geroago bertaratu ahal izatea, jabeak telefonoz eskatu zuen bezala.

**KONTUAN HARTURIK** Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 25. artikuluekin bat etorritik, desjabetzekoak diren ondasunak okupatzeko edo eskubideak eskuratzeko beharra deklaritzen duen erabakia irmoa denean, horien balio justoa zehaztuko dela.

**KONTUAN HARTURIK** legezko xedapen horren 29. artikulua ezartzen duela administrazioak hogeitau eguneko epea emango duela, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, prezio-orria aurkezteko; eta bertan, **zehaztuko dela zein den eren ustez ondasunei dagokion balioa, eta egokitzat jotzen dituen alegazio guztiak egin ahal izango dituela.**

**KONTUAN HARTURIK** Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 30. artikulua arabera, Administrazio desjabetzaileak jabetzak egindako balorazioa onartu edo baztertu beharko duela hogeitau eguneko epe berean. Eta uko eginez gero, desjabetzearen xedearen balioaren prezio-orri funtsatua egin beharko duela jabeari jakinaraziko zaiona, eta jabetzak, hurrengo hamar egunen barruan, onatu edo baztertu ahal izango duela, eta, bigarren kasu horretan, egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko eskubidea izango duela, 43. artikulua ondoietarako bere balorazioa justifikatzeko egokien irizitako balorazio-metodoak erabiliz, eta, era berean, alegazio horiek justifikatzeko egokitzat jotzen dituen frogak aurkezteko eskubidea izango duela.

**KONTUAN HARTUTA** Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 31. artikulua aplikatuz, jabetzak uko egiten badiu eskainitako prezio oinarrituari, balio justuaren espedientea Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiari igorriko zaiola.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

2023ko azaroaren 21ean egindako Ogasun eta ondare batzordeak, beste gaien artean goian aipatutakoa aztertu ondoren, erabaki zuen udal osoko bilkurari eskatzea honako akordio hauek har ditzan:

**Lehenengoa.-** Benita Alberro Arreguik aurkeztutako alegazioa partzialki onartzea, desjabetu beharreko azalerari dagokionez, eta katastro-azaleran finkatzea (1340 m<sup>2</sup>), eta gainerako alegazioak ezestea.

**Bigarrena.-** Ez onartzea Bentia Alberro Arreguik aurkeztutako prezio-orria.

**Hirugarrena.-** Benita Alberro Arreguiri desjabetzearen xede den balioaren prezio-orri funtsatua ematea, erabaki honen eranskinean jasotzen dena.

**Laugarrena.-** Benita Alberro Arregui 10 egun balioduneko epea ematea (ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita) Udalaren prezio-orria onartzeko edo baztertzeko. Uko egiten badio, egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, 43. artikulua onorioetarako bere balorazioa justifikatzeko, eta alegazio horiek justifikatzeko egokitzen jotzen dituen frogak ere aurkeztu ahal izango ditu.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **7.-Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak 2022IONJ0001/ 2022IONJ0002 espedientearen finkatutako balioespenaren aurka jarritako PO-0000698/2023 auzi-errekurtsua**

Alkateak desjabetza espediente honen zergatia eta auzi-errekurtsuaren nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**“Bakarra.-** BERRESTEA Administrazioarekiko auzi-errekurtsuan pertsonatzeari buruzko azaroaren 14ko 1227/2023 Dekretua, honako hau ebazten duena:

**Lehenengoa.-** Margarita José Rodríguez andreak eta Jesus Maria Aduriz jaunak, jarraian adierazitako espedientearen balio justua zehazten duen, Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiaren ebazpenaren aurka jarritako PO-0000698/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsuan pertsonatzea, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko Auzietarako Salan:

**Balio justu espedientea:** 1/2023 zkia., 2. finka (Astigarraga). Urumea ibaiaren uholdeei aurre egiteko proiektuaren desjabetze-proiektua, Akarregi-Ergobia tartean (1. separata). **Administrazio desjabetzailea:** Astigarragako Udala. **Onuraduna:** Uraren Euskal Agentzia. **Jabeak:** Jesus Maria Aduriz Garmendia eta Margarita José Rodríguez Casco

**Bigarrena.-** Aipatutako auzi-errekurtsuan Udal honen interesak defendatzeko, abokatu-lanak Nekane Azarola Martinez abokatuaren esku uztea, eta prokuradore-lanak Bilboko Elkargoko Xabier Nuñez Irueta prokuradorearen esku.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **8.-Arrobitxuloko hiri-igogailua jartzeko obra-kontratuaren prezioen aparteko berrikuspena.**

Alkateak azaldu ditu Construcciones Moyua SL enpresaren eskaeraren nondik norakoak eta arrazoiak, bai eta udal-idazkariaren txosten juridikoaren nondik norakoak, eta obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren





## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

**“Lehenengoa**.- Arrobitxuloko hiri-igogailu bat jartzeko obra-kontratuaren prezioen aparteko berrikuspen eskaera ezestea, ez baitira betetzen 3/2022 Errege Lege Dekretuak berrikuspen horretarako eskatzen dituen baldintzak.

**Bigarrena**.- Erabaki hau Construcciones Moyua SL enpresari jakinaraztea, eta udal-idazkariaren 2023ko azaroaren 20ko txosten juridikoa bidaltzea”.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **9.- Klima babeslekuen eta espazio publikoen birnaturalizazioari buruzko adierazpen instituzionala.**

Alkateak azaldu du Udal talde euskal sozialista mozioa aurkeztu zuela, eta gobernu taldeak ekarpen batzuk egin zituela, Patxi zinegotziak ontzat eman zituena. Ondoren, hitza pasa dio Patxi zinegotziari, eta horrek testu hau aurkeztu da onartu izan dadin:

*“Euskal Herriak egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin behar die eta erronka horietako handiena klima-aldaketa da, eragin globala eta handiena duelako.*

*Klima-aldaketak hainbat ondorio kezagarri ekarri ditu gure planetan, horietako bat bero-bolada gero eta gogorragoak eta ohikoagoak eragitea.*

*Uda honetan, gure lurraldea astindu duten bero-bolada gogorren lekuko izan gara, eta ezin dugu ahaztu muturreko gertaera horiek klima-aldaketarekin lotuta daudela.*

*Zientzialariek hamarkadak daramatzate klima-aldaketan fokua jartzen eta klima-aldaketak gure egunerokoan eragiten dituen inpaktuen maiztasuna eta eraginean arreta jartzen.*

*Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero-bolada horretan, 1981ean baino bero-erregistro historiko handiagoa izan zuela, eta abuztu erdialdean inoizko egunik beroena izan genuen: 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu ziren Euskadiko hainbat tokitan, baita tenperatura horiek gainditu ere, Solupen (Bizkaia), esaterako, 45,3 gradu, 1981eko 45- 44 graduak gaindituta.*

*Euskadi izan da tenperatura altuengatik alerta gorria ezarri duen autonomia-erkidego bakarra. Tenperatura horiek direla eta, Euskadin 48 pertsonari eman zaie arreta tenperatura altuengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).*

*Gero eta maizago gertatuko dira horrelakoak eta, beraz, unea da gure udalerrietan klima-aldaketara egokitzeko neurriak abian jartzeko, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun moduan zaindu eta kontserbatzeko eta gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna zaindu eta babesteko.*

*Erronka handia izateaz gain, klima-aldaketaren aurkako borrokak eta horretara egokitzeak udalerrri erresiliente eta osasungarriak sortzeko aukera gisa balio behar digute.*

*Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udaleko Osoko Bilkurak honakoa adierazten du:*

*Konpromisoa hartzen du udalerriko azpiegitura berdeari buruzko azterlan bat egiteko eta udalerriko gune grisenetan birnaturalizazioa sustatzeko, azken urteotan egin duenaren ildotik.*

*Konpromisoa hartzen du tenperatura optimoa bermatuko duten eta bero-boladen garaian aterpe klimatiko gisa erabil daitezkeen kanpoko zein barruko espazioak prestatzeko.*

*Konpromisoa hartzen du, orain arteko bideari jarraituz, hirien berdatzea sustatzeko, zuhaitzik edo eguzki-babesik ez dagoen lekuetan eta eremu gris gehiegi dauden lekuetan, gure hiriak klima-aldaketara eta gure herritarren osasuna babestera egokitzeko neurri gisa.*

*Konpromisoa hartzen du eskola-jolastokien eraldaketa balioesteko, leku inklusiboagoak, jasangarriagoak eta naturalizatuagoak bihurtzeko”*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta adierazpena aho batez onartu da.

### **10.- Euskararen nazioarteko eguneko adierazpen instituzionala**

Alkateak adierazi du goizean egindako bozeramaile batzordean aldeko irizpena jaso duela, baina ez duenez alderdi guztien aldeko botoa izango, mozio bezala onartuko dela. Ondoren testua hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*“Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da erreliatea, ordea, eta egiteko konplexuak daukagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.*

*Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatikheldu den oldarraikiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.*

*Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertakohizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.*

*Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreakoa nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin duguzabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.*

*Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa onartu da aldeko 11 botoekin (Astigarragako EH Bildu eta Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena) eta kontrako boto batekin (Udal talde euskal sozialistarena).

### **11.- Informazio, galdera eta eskariak.**

Alkateak azaldu du legegintzaldiko plana prestatzen daudela, baina hori ez dela aurkeztuko martxoak arte,



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

asmoa delako bertan txertatzea “A\* Nahi dugun Astigarragarantz – herri gogoetak” prozesuetako ekarpenak.

Bestetik, eskerrak eman dizkie udal-kontuhartzaileari eta ogasuneko zinegotziari, udal aurrekontua prestatzen egindako lan guztiarekin.

Eta bukatzeko adierazi du abenduko batzordeak 11ko astean egingo direla, eta udal osoko bilkura eta tokiko gobernu batzarra, berriz, hilak 20an.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko azaroaren 28an

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko idazkaria